

11

Gida didaktikoa

Zetazko harra

(Txina)

Zetazko harra

(Txina)

Gida didaktikoaren azalpena

· Gai-zerrenda :	1.or.
· Helburuak	2.or.
· Jarduerak	3.or.
· 1.- Ahozko hizkuntza	5.or
· 2.- Idatzizko hizkuntza	5.or
· Gidoi literarioa	6.or.

Bibliografia 13.or.

Egileak 14.or.

HELBURUAK:

Ordena kronologikoari jarraituz fikziozko narrazioa zein errealitatean oinarritutakoa egitea, lekuzko eta denborazko konektoreak baliatuz eta aditz-denbora egoki erabiliz.
Eskolako eguneroko bizitzako egoeretan parte hartzea, ahozko hizkuntza erabiliz.
Gaitasun metalinguistikoa garatzea.

EDUKIAK:

Jarrerak:
Begirunea.
Zuzentasuna.
Ordena.

Prozedurak:

ULERTZEKO ETA EKOIZTEKO PROZEDUREKIN ERLAZIONATUTA DAUDENAK.

A. AHOZKO TESTUAK ULERTZEA eta EKOIZTEA:

- a. Narrazioa: kondaira
- b. Gelako eztabaidak / planifikazioa.

B. AHOZKO ETA IDATZIZKO TESTUAK ULERTZEA

- a. Azalpeneko testu historiko egokitua.

C. AHOZKO ETA IDATZIZKO TESTUAK EKOIZTEA:

- a. Narrazioa: kondaira.
- b. Azalpeneko testua: laburpena.
- c. Ordenari jarraituz kontatzea: adierazi gurpilaren aurkikundeak kronologikoki, lekuzko eta denborazko konektoreak baliatuz eta aditz-denbora egoki erabiliz.

Kontzeptuak:

HITZAREN MORFOLOGIA: mikroegiturak

Deklinabideko markak: Nondik?/Nora?

Zerez?/Zerezkoa?

Izena: Hitz konposatuak: -dun atzizkia.

Esapideak:

Iritziak ematekoak: nik uste dut, nire aburuz,

Erabateko ziurtasuna ez dugunean: uste denez, antza denez, -ren arabera,

Konexioko mekanismoak:

Lehenago, ondoren, denbora igaro ahala, denboran zehar, ... hasieran eta geroago ...

Esate baterako ..., besteak beste, honakoak,

2.3 ERABILTZEKO IRADOKIZUNAK.

JARDUERAK:

ULERTZEKO ETA EKOIZTEKO PROZEDUREKIN ERLAZIONATUTA DAUDENAK.

·Ikusi baino lehen, eman izenburua, erakutsi karatula, eta bermatu hipotesiak egiten dituztela.

A. AHOZKO ETA IDATZIZKO TESTUAK ULERTZEKO PROZEDUREKIN ERLAZIO-NATUTA DAUDENAK.

·Ikusi eta entzun kondaira osoa. Ulertu eta kritikatu: zer azaltzen den, beste azalpenen bat egon ote daitekeen...

B. AHOZKO ETA IDATZIZKO TESTUAK EKOIZTEKO PROZEDUREKIN ERLAZIO-NATUTA DAUDENAK.

·Egin kondairaren sekuentzia: ahoz eta marrazkiz. Prestatu txotxongilo-saioa: banatu pertsonaiak, diseinatu, egin dekoratuak, ahalegindu sortzen diren eztabaidak eta desadostasunak hitz eginez konpontzen.

Planifikazioa:

Lanen eta erantzukizunen banaketa

Lanen koordinazioa

Lanaren kontrola

Saiakerak aztertzea: behaketak apuntatzea /iradokizunak eta iritziak ematea.

Iradokizunak onartzeko bozketetan parte hartzea.

Lanaren balorazioan parte hartzea

·Asmatu taldeka gizakien aurkikuntzaren bati buruzko kondaira bat: "Metala nola ezagutu genuen". "Gurpila nola ezagutu genuen". "Zeramika nola ezagutu genuen". "Antibiotikoak nola ezagutu genituen".

"Ehunak" (Informazioa).

Gizakiok gure gorputza babesteko hainbat baliabide erabili izan ditugu: animalien larrua, animalien ilea eta landareen zuntzak.

Zeta oso berezia da, izan ere ez da animalia baten ilea. Zetazko harrak tximeleta bilakatu baino lehen kapulu bat sortzen du, hor izaten da hainbat egunez eta tximeleta bihurtuta irte-ten denean, kapulua hutsik geratzen da.

Herri bakoitza inguruan izan duenaz baliatu da oihalak egiteko.

Hona hemen ezagutzen ditugun oihalen jatorria.

Lihoa, Egipton. Kotoia, Indian, Perun eta Kanboian. Artilea, Europan.

Zeta, Txinan. Liho hitzaren jatorria egiptiarra omen da.

"Txal" hitza Kaukasoko artilezko oihal baten izenetik dator: "shal"

Zeta, lihoa eta kotoia oso preziatuak izan ziren eta dira. Antzina oihalak saltzeko eta erosteko merkatari-bideak eratu ziren eta oso ospetsua zen "Zetaren bidea", Txinatik Turkiaraino.

Zeta oso preziatua izan da beti, baina Txinatik kanpo ez zen ekoizten, ehundu bai. Izan ere, Europan ez genekien zetarrak nola zaindu. Lehendabiziko zetarrak K.o. VI. mendean merkatari batzuek ekarri zituzten ezkutuan. Hala ere, XVI. mendera arte ez genuen zeta ekoizte-rik lortu eta, gainera, kantitate txikietan.

Zeta hain da polita, zientzilariek betidanik nahi izan dutela zeta laborategian sortu, eta hala, beste zuntzak sortu dituzte, hala nola nylona, rayona eta poliesterra. Ehun hauei sintetikoak deitzen diegu, gizakiak sortuak direlako.

Gaur egun, ehun sintetikoak askotan erabiltzen ditugu, merkeagoak baitira. Dena den, ez dira zuntza naturalez egindakoak bezain onak. Zuntza sintetikoek ez dute izerdia zurgatzen eta elektrizitate estatikoa sortzen dute. Gainera, ez digute tenperaturari eusten laguntzen: hotz dagoenean, hoztu egiten gara, eta bero dagoenean, bero gehiago ematen digute; kotoia, zeta eta lihoa, aldiz, oso egokiak dira tenperaturari ondo eusteko. Azalak ere asko eskertzen du zuntz naturalez egindako jantziak erabiltzea, ukimen gozoagoa baitute.

Nola jakin jantzi bat zerez eginda dagoen? Barruan daraman etiketari ondo erreparatu, eta ikusiko duzu zerez egin dagoen eta nola garbitu edo lisatu behar den, izan ere zuntz sintetikoek ez dute tenperatura altua jasaten eta gogortu egiten dira.

C. ULERTZEKO ETA EKOIZTEKO PROZEDURAK

·Prestatu kondairari buruzko hitzaldia: azaldu "zeta nola ezagutu genuen" ZIENTZIAREN ARABERA. Jaso informazioa, aukeratu, ordenatu, idatzi edo marraztu, ikasi eta azaldu ahoz.

·Utzi kondairaren gainean egindako lana gelako liburutegitxoan egun batzuez.

D. HAUSNARKETA METALINGUISTIKOA.

Bete testu honetan dauden hutsuneak zuk proposatutakoekin:

Gizakiok gure gorputza babesteko hainbat baliabide erabili izan ditugu: animalien ..., animalien eta landareen

Zeta oso berezia da, ez da animalia baten ilea. Zetarrak, tximeleta bilakatu kapulu bat sortzen du, hor izaten da hainbat egunez eta tximeleta bihurtuta irteten, kapulua hutsik geratzen da.

Herri bakoitza inguruan izan duenaz baliatu da oihalak egiteko.

Hona hemen ezagutzen ditugun oihalen jatorria.

Lihoa, Egipton. Kotoia, Indian, Perun eta Kanboian. Artilea, Europan.

Zeta, Txinan.

Liho hitzaren jatorria egiptiarra omen da.

"Txal" hitza Kaukasoko artilezko oihal baten izenetik dator: "shal"

Zeta, lihoa eta kotoia oso preziatuak izan ziren eta dira. oihalak saltzeko eta erosteko merkatari-bideak eratu ziren eta oso ospetsua zen "Zetaren bidea", Txinatik Turkiaraino.

Zeta oso preziatua izan da beti, baina Txinatik kanpo ez zen ekoizten, ehundu bai. Izan ere, Europan ez genekien zetarrak nola zaindu. Lehendabiziko zetarrak K.o. VI. mendean merkatari batzuek ekarri zituzten ezkutuan. Hala ere XVI. mendera arte ez genuen zeta ekoizterik lortu eta, gainera, kantitate txikietan.

Zeta hain da polita, ikerlari.... betidanik nahi izan duten zeta laborategian sortu eta hala, beste zuntzak sortu dituzte, hala nola nylona, rayona eta poliesterra. Ehun hauei sintetikoak deitzen diegu, gizakiak sortuak

Gaur egun, ehun sintetikoak askotan erabiltzen ditugu, merkeagoak baitira. Dena den, ez dira zuntza naturalez egindakoak bezain onak. Zuntza sintetikoek ez dute izerdia zurgatzen eta elektrizitate estatikoa sortzen dute., ez digute tenperaturari eusten laguntzen, hotza dagoenean hozten gara eta bero dagoenean bero gehiago ematen digute, kotoia, zeta eta lihoa, aldiz, oso egokiak dira tenperaturari ondo eusteko. Azalak ere asko eskertzen du zuntz naturalez egindako jantziak erabiltzea, ukimen gozoagoa baitute.

Nola jakin jantzi bat zerez eginda dagoen? Barruan daraman etiketari ondo erreparatu eta ikusiko duzu zerez egina dagoen eta nola garbitu edo lisatu behar den, izan ere zuntz sintetikoek ez dute tenperatura altua jasaten eta gogortu egiten dira.

. Kontatu goiko testua ahoz, duela minutu bat gertatu izan balitz bezala.

2.4. GIDOIA EDO BLOKEKAKO LABURPENA, DENBORA ZEHAZTUZ.

Gidoi literarioa:

IZENBURUA: Zetarra

NARRATZ: Kaixo, zer moduz? / Oraingo kondaira Txinan kontatu zidaten. / Txina (Ad Lib) oso lurralde zabala da. Eurasiako ekialdean dago, sortaldean hain zuzen. Europako biztanleen artean Eguzkiaren sorlekua dela esaten dugu. Biztanle asko ditu eta historia luzea. Eta oso kultura aberatsa.

NARRATZ: Marrazteko era oso berezia dute, baita idazkera ere. Txinatarrek asmatu zuten zetazko ehuna. Oso preziatua da, leun-leuna eta eroso. Jakingo duzue har batek sortzen duela zeta-haria. Hari horrekin kapulua egiten dute harrek. Eta kapulua hustu eta gero, txinatarrek haria kiribildu eta ehundu egiten dute honelako oihal ederrak eginez.

NARRATZ: Animalia txiki hau nola izan daiteke hain trebea? Kondaira honek zetarraren jatorria azaltzen du. Azalpen bitxia benetan! Entzun ezazue adi eta ea gustatzen zaizuen! (Ad Lib)

NARRATZ: (Off) Txinako baserri batean familia bat bizi zen. Horra aita, ama eta alaba afalorduan.

AITA: Ea, alaba, ohera.

ALABA: Bai, bihar arte.

AMA: Agur, ondo lo egin.

NARRATZ: Alaba ohera joan da. Baina aita eta ama sukaldean geratu dira, hitz egin behar dute eta.

AITA: Baina, zer duzu, emakumea?

AMA: Ai, ene (Ad Lib)

ALABA: (Ad Lib) Ez, ez (amesgaiztoak).

AITA: Agur, maitea.

AMA: Ez dut nahi, ez zaitez gerrara joan. / (Ad Lib)

AITA: Badakizu behartuta nagoela.

ALABA: (Ad Lib)

AMA: Ezkutatu egingo gara.

AITA: Aurkitu egingo gaituzte, eta ondasun guztiak kenduko dizkigute.

ALABA: (Ad Lib)

AMA: Baina hil zaitezke.

AITA: Bai, hala da. Baina ezkututzen bagara, enperadorearen soldaduek hilko gaituzte.

AMA: (Ad Lib) Gerra madarikatua! (Negarrez.)

AITA: Ez kezkatu, onik aterako naiz! / (Musu) / Itzuliko naiz.

AMA: (Ad Lib)

NARRATZ: (OFF) Aita gerrara joan zen. Han hondamendia besterik ez zuen aurkitu. Soldaduak eurak zeharo beldurtuta zeuden. Oso egoera latza zen.

GIZON : Ai! Ez! Lagundu! O! Ama nirea! Ene! Hau sarraskia!

AITA: (Ad Lib) X

GIZON : (Ad Lib)

AMA: Tori, alabatxo, hartu hau.

ALABA: Eskerrik asko, ama.

AMA: (Negar)

NARRATZ: (Off) Aita gerran borrokatzera zihoan eta, alabak haren hutsunea igartzen zuen etxean.

ALABA: Ama, aita non da?

AMA: Alaba maitea, orain arte nekez bizi izan bagara ere, zoriontsu bizi izan gara, baina zoritxarrik handiena heldu zaigu.

ALABA: (Ad Lib) (Ez du ulertu, adi-adi begira ari zaio.)

AITA: (Ad Lib)

GIZON : (Ad Lib)

AMA: Aita gerraran da! / (Ad Lib)

ALABA: (OFF) (Ad Lib)

NARRATZ: (Off) Ama oso kezkatuta zegoen , gerrak asko beldurtzen zuen eta.

AITA : (Ad Lib)

GIZON : (Ad Lib)

ALABA: Eta zer da hori?

AMA: (Negarrez) Borrokatzera joan da beste gizaki batzuen kontra.

ALABA: Oooo!!

AMA: Aiiii!!

ALABA: Zergatik?

AMA: Enperadoreak agindu diolako.

ALABA: Zergatik?

AMA: Bere inperioa zabaldu nahi duelako. Lur gehiago eskuratu nahi duelako. (Ad Lib)

AITA : (Ad Lib)

GIZON : (Ad Lib)

AMA: (Negarra artean) Ez du nahikoa nekazariei lapurtzen digunarekin eta orain bizitza arriskatzera behartzen gaitu beste batzuei lurra lapurtzeko. Zein zorigaizto ikaragarria!

ALABA: (Ad Lib) / Oi, Amaaa!

AITA : (Ad Lib)

GIZON : (Ad Lib)

AMA\ALABA: (Ad Lib) Zer egingo dugu? (Etab.)

AITA : (Ad Lib)

GIZON : (Ad Lib)

AMA\ALABA: (Ad Lib) Hau zoritxarra! (Etab.)

AITA : (Ad Lib)

GIZON : (Ad Lib)

AMA\ALABA: (Ad Lib)

GIZON : Ai, ene, lagunduuuuu!

AITA: (Orroak)

NARRATZ: (Off) Alabak ezin zuen aita burutik kendu: beldur zen zerbait txarra gertatuko ote zitzaion. Hain zegoen kezkatuta, bere buruarekin ozenki hitz egiten baitzuen lanean zebilen bitartean.

ALABA: (Negarrez) Aiii, zer egin dezakegu? / Zeeer? / Tira, lanera

ZALDIA: (Ad Lib)

ALABA: Zu bai ongi bizi zarela.

Ez dakit zer egingo nukeen aita hona ekartzeko.

NARRATZ: (Off) Neska ez zen konturatu zaldia entzun egiten zuela.

ZALDIA: (Ad Lib)

ZALDIA: (Ad Lib)

ALABA: (Hasperenka, zaldia jaten ari dela, ondoan eseri da) A, inork lagundu ahalko balit, izugarri eskertuko nioke; eskatuko lidakeen guztia emango nioke.. prest nengoke berarekin ezkontzeko ere.

ZALDIA: (Ad Lib)

NARRATZ: (Off) Zaldia dena entzun zuen eta neskaren esanak hitzez hitz hartu zituen: berarekin ezkontzeko, aita etxera ekarri behar zuela pentsatu zuen.

AITA: (Ad Lib)

NARRATZ: Aita borrokan zebilen, neka-neka eginda. Baina zaldiaren trosta entzun zuenean

ZALDIA: (Ad Lib)

NARRATZ: Ezagun egin zitzaion eta deitu egin zion.

AITA: (Txistua)

NARRATZ: A zer poza hartu zuten biek berriro elkar ikustean!

ZALDIA: (Ad Lib)

AITA: (Ad Lib)

Ene, zoritxarren bat gertatu da?

ZALDIA: (Ad Lib) (Ezetx)

AITA: Emaztea ondo da?

(Zaldiak buruaz baietz egin du)

ZALDIA: (Ad Lib)

AITA: Orduan, alaba da gaizki dagoena.

ZALDIA: (Ad Lib)

AITA: Ez dut ulertzen. Zertara etorri zara?/ Zer zer /

Zer nahi duzu? Nork bidali zaitu?

ALDIA: (Ad Lib) (Zaldiak atzetik bultza egin nahi dio eramateko)

AITA: Zer? Nola? Baina, Aa!! Ondo da, badakit zer esan nahi didazun: zurekin joateko, ezta?

ZALDIA: (Ad Lib) (Baietz)

AITA: A, zaldi zintzoa! Goazen, ba.

NARRATZ: (Offean). Bai, huraxe nahi zuen zaldiak. Eta huraxe bera egin zuen aitak. Biharamunean alabak zaldiaren trosta entzun zuenean

ALABA: Ama, ama! Zaldi bat hurbiltzen ari da.

AMA: (OFF) Zaldi bat?

ALABA: Bai!

AMA: (OFF) Ai, ene!

ALABA: Etorri, etorri azkar! // Baina, ez al da gure zaldia ba? (Ad Lib)

AMA: (Korrika etorri da, arnasestuka) Ez dakit, ez dut ondo ikusten. Ez zitzaion ba ezer gertatuko aitari!

ALABA: (OFF) Ai, ama! Ez esan hori mesedez!

NARRATZ: Amak berehala igarri zion gertatzen ari zenari: zaldiak aita zekarren etxera.

AMA: (Zaldunari arretaz behatu ondoren) Aita da! Ene! Zure aita, maitea! Hau poza!/ Aiii!

ALABA: Aita! (Ad Lib)

AITA: Nola aldatu zaren! Maitea! (Ad Lib)

ALABA: Bai (Ad Lib)

AMA: Aita!

AITA: Ai, ai, ai Ez dut ulertzen zerk eragin dion zaldiari nire bila etortzeko, baina dena dela ere pozten naiz. A, zeinen ondo nagoen hemen! / (Ad Lib)

AMA: Ongi etorri etxera, maitea!

ALABA: Aita! (Ad Lib)

ALABA: (Ad Lib) (Amesgaiztoak)

NARRATZ: (Off) Gauaren erdian, zaldia irrintzika hasi zen eta ukuiluko hormaren kontra ostikoka. Neskak ezin zuen lorik egin. Aitak ere ez. Eta ukuilura joan zen zaldiak zer demontre zuen ikustera.

NARRATZ: (Offean). Zaldia etengabe mugitzen zen batera eta bestera zarataka. Ez zegoen lasaitzerik. Gaixorik ote zegoen? Aitak ez zekien zer pentsa.

ZALDIA: (Ad Lib)

AITA: Baina zer gertatzen zaio zaldi honi? / Ene, hau jasanezina da!

Jasanezina! /// (Zaldiari) Lasaitu hadi, lasaitu (Ad Lib) Zer da? Zein da arazoa?
Hago lasai. To; jan ezak zerbait Ez? Ez duk nahi? / Zer duk ba?

ZALDIA: (Ad Lib)

(Aita amarekin sukaldean)

AITA: Ez dut ulertzen zer duen, ez du ematen gaixorik dagoenik. Zer ote du?

AMA: Nik zer dakit! / Ai / La, la, la

NARRATZ: (Off) Amak aita lasaitu nahi zuen.

AMA: Agian urduri dago etxera bizirik itzuli zarelako.

AITA: (Ad Lib) Jaten ere ez du ba nahi izan! Martxa honetan gaixotu egingo da.

AMA: Ba, pasako zaio.

AITA: Ez dakit ba nik.

NARRATZ: (Off) Alabak oraindik ez zekien zaldia maiteminduta zegoela.

ALABA: Egun on! (Musuak) / Egun on, ama.

AITA: Egun on.

AMA: Kaixo. // La, la, la

AITA: Zaldiak oso urduri pasatu du gaua. Eskuilatu ongi eta eraman ezazu paseatzera. / Ados?

ALABA: Ez dut uste ideia ona denik. Urduri badago, beharbada min emango dit.

AITA: Zer?

AMA: Arrazoi du. Nik eramango dut.

AITA: Zer?

ALABA: Bai, bai

ZALDIA: (Ad Lib)

NARRATZ: (Offean). Amak zaldia ukuilutik kanpora atera zuen, baina alferrik, ez zen lasaitzen. Bat-batean ihes egin zion etxeraino eta ostikoka hasi zen berriro.

AMA: Egon, egon! Geldi, Soooo!

ZALDIA: (Ad Lib)

AITA: (Zaldiaren irrintzien artean) Zer ote du zaldi honek? Orain arte ondo egon da?

ALABA: Ui!!

ALABA: Bai, nik dakidala ondo egon da.

AITA: (Offean, zaldiaren irrintzien artean) Geldi, geldi! Soo!

NARRATZ: (Off) Sukaldean zegoela, esandakoa gogora etorri zitzaion alabari.

ALABA: A, inork lagundu ahalko balit, izugarri eskertuko nioke. Eskatuko lidakeen guztia emango nioke prest nengoke berarekin ezkontzeko ere.

ZALDIA: (Ad Lib)

ALABA: A, inork lagundu ahalko balit, izugarri eskertuko nioke. Eskatuko lidaken guztia emango nioke.. prest nengoke berarekin ezkontzeko ere.

ALABA: (Izututa.) Ni ezin naiz zaldi batekin ezkondu! Burutik eginda dago! / (Ad Lib)

AITA: Ai, ai, ai Ene! Baina zer duk? / Zein da arazoa? / Et, et, et

NARRATZ: (Off) Aitak, nekatuta, zaldia lotu egin zuen, ea hala lasaitzen zen.

ZALDIA: (Ad Lib)

AITA: Sentitzen diat, baina lasaitu artean lotuta egon beharko duk. Aditu duk?

NARRATZ: Neska sukaldean zegoen oraindik. Nola aitortuko zion aitari bera zela erruduna?

AITA: Listo!

ALABA: Ai! Nola esango diot ba aitari? / Nola? (Ad Lib)

ZALDIA: (Ad Lib)

AITA: Horrela ez haiz mugituko. / Zatoz laguntzera!

ZALDIA: (Ad Lib)

NARRATZ: (Off) Alaba ez zen ausartzen zaldiaren aurrera agertzen.

ZALDIA: (Ad Lib)

AITA: Ixo, Ixo! Hago lasai, demontre!

ALABA: (Ad Lib)

AITA: Ez dut ezer ulertzen.

ALABA: (Ad Lib) Agur, aita, ni banoa!

AITA: Zatoz hona! Laguntzeko esan dizut.

ZALDIA: (Ad Lib)

AITA: Etortzekoooo! / Aaaa! Ezin dut gehiago agoantatu!

NARRATZ: (Off) Haserre bizian zegoen aita.

AITA: Hori behar genuen, zu ere tuntunarena egiten hastea! Zatoz laguntzera behingoz, ez daukat egun osoa!

ALABA: (Ad Lib)

NARRATZ: (Off) Neska ez zen ausartzen gertatutakoa kontatzen.

ALABA: Aita,... ni,... Aita,... ni naiz zaldiaren jokabidearen erruduna.

AITA: Zu? Hara bestea! Azkenaldi honetan ezustekotik ezustekora nabil! Zer daki-zu zuk horretaz?!

ALABA: Zu itzultzea nahi nuen, eta egun batean nire nahia ozenki azaldu nuen. Ez nekien zaldiak ulertuko zuenik. Burutik pasa ere ez zitzaidan egin benetan hartuko zuenik.

AITA: Zeeer? / Zer esan zenuen bada? / Aaaiii!!

ALABA: Esan nuen... Esan nuen zu ekarriko zintuenarekin ezkonduko nintzela. Orain ulertzen duzu?

AITA: (Ad Lib) Ene, hori da? Zurekin ezkondu nahi du! (Ad Lib)

ALABA: (Ad Lib)

AITA: Hau zoramena, nola izan daiteke?

ALABA: Ez dakit. Baina agindu nuena bete dezadan nahi du.

AITA: Umm! Ezin zara zaldi batekin ezkondu, ez dezala ametsik egin!

ALABA: Ba, nik uste dut ez duela etsiko. (Ad Lib)

AITA: Hau amets gaiztoa! (Ad Lib)

ZALDIA: (Ad Lib)

AMA: Aaiii, nire alaba gaixoa!

ALABA: (Ad Lib)

AITA: Erabakita dago!

NARRATZ: (Off) Ama eta alaba penatuta zeuden. / Aitak labana handi bat hartu zuen zaldia hiltzeko.//

AITA: Agur, adiskidea! (Ad Lib)

NARRATZ: Han geratu zen zaldia hilik, gizagaixoa!

AITA: Agur.

NARRATZ: Handik gutxira, alaba arropa eskegitzen ari zen unean, haizea atera zuen. Eta zurrunbiloak zapi bat zaldiaren gainera eraman zuen, eta zaldia estaliz.

ALABA: (Ad Lib)

NARRATZ: Alaba zapia hartzera joan zenean, zaldia berpiztu egin zen eta urrutira eraman zuen berekin.

ALABA: E! Baina zer? / Nor? / Aaaa!!

AITA: (Ad Lib)

AMA: (Ad Lib)

ALABA: Ama, aita! Lagundu!

AITA: Zer da hori?

AMA: (Ad Lib)

ZALDIA: (Ad Lib)

ALABA: (Off) Ama, Aita! Lagundu!

ALABA: (Off) Laguntza, ama, aita!

NARRATZ: (Off) Aita alabaren bila joateko prestatu zen. Ezpata handi bat hartu eta arineketan joan zen.

AMA: Zer egingo duzu, gizona?

AITA: Bila noa. Eta aurkitu egingo dut, bizitza guztia horretan eman behar badut ere.

NARRATZ: Aita alabaren bila joateko prestatu zen, ezpata hartu eta arineketan joan zen.

AITA: E? / Zer izan da hori? / (Ad Lib) (Ad Lib) / A, ez da ezer izan, uf.

NARRATZ: (Off) Ibilian-ibilian oihana zeharkatu zuen. Bai eta oso-osorik arakatu ere! Hura zen amorrua! Zaldia aurkituko balu, ez zekien zer egingo liokeen. Baina ez zegoen zaldiaren arrastorik, eta neskarenik ere ez. Atsedean hartzen ari zenean, atentzioa eman zion sorbaldaraino heldu zitzaion hari fin batek.

Gora begiratu eta alabaren ahotsa entzun zuen.

AITA: Ea hemendik Uum! Tira hortik jarraituko dut (Ad Lib) Bai, hortik. (Negar) / E? Zer arraio?

ALABA: Aita, hemen naiz!

AITA: E? Non, baina? Ez zaitut ikusten! Non zaude?

ALABA: Ni naiz, harra!

AITA: Alaba neurea, zer gertatu zaizu?

ALABA: Zaldia har bihurtu ninduen agindutakoa ez betetzeagatik.

AITA: Har, zu, nire alaba?

ALABA: Ez nolana hiko, ez pentsa. Ikusi duzun hari eder hori nik egin da.

AITA: Harra ala ez, etxera eramango zaitut.

ALABA: Baina zuhaitz honen hostoak behar ditut.

AITA: Beno, etxe aurrean ereingo dugu. Horixe.

NARRATZ: (Off) Harra ugaltu egin zen, eta etxekeok zetazko ehuna egiten ikasi zuten.

AITA: Ai, alaba. (Ad Lib) A zer polita eta leuna!

ALABA: (Ad Lib) Kar, kar, kar! Aita,...

AITA: Kar, kar, kar

NARRATZ: Eta hauxe izan da dena. Beno, badakizue kondairak irudikapena baino ez direla, e?

BIBLIOGRAFIA.

- AZKUE, R. M. (1989). Euskal Herriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco II: Cuentos y Leyendas. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid.
- Mundu zabaleko ipuinak (1981) Gero argitaletxea. Bilbo.
- DUESO, J. (1997). Cuentos y leyendas de Euskal Herria fantástica ROGER argitaletxea. Donostia
- BARANDIARAN IRIZAR, L. (1995). Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco. Donostia
- BASILE, J. B. (1991). El pentamerón. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.
- JACOBS, J.(1987). Cuentos de hadas célticos. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.
- ANDERSEN, C. (1973). La sombra y otros cuentos. Alianza Editorial, S.A. Madrid.
- CURTIS, E.S.(1999). Las flechas mágicas y otros relatos de los indios cheyenes, comanches, wíchitas... José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona
- GUELBEZU, J. M. (1996). Cuentos populares españoles. Siruela argitaletxea. Bartzelona.
- AFANASIEV, A. N. (1983). Cuentos populares rusos I. Anaya argitaletxea.
- El gran encuentro. liburu bilduma. (1995). SM argitaletxea.
- PHILIP, N. (1995). El libro ilustrado de los mitos. Ediciones BUHO:, S.Alizia.
- GIBSON, M. (1984). Monstruos, dioses y hombres de la mitología griega. Anaya
- TAO TAO LIU SANDERS. (1984). "Dragones, dioses y espíritus de la mitología china" Anaya
- BRANSTON, B. (1984). Dioses y héroes de la mitología vikinga. Anaya

Interneteko helbideak:

www.Zernola.net: Alegiak/alegien zerrenda.
<http://www.pnte.cfnabarra.es/kzeta/ipuina.htm>
<http://www.teatroa.com/ipuinak.html>
<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

E G I L E A K

GOIATZ MULTIMEDIA, S.L.

PRODUKTOREA:
Luisa Calvo

**EGITASMOA, GIDOIA
ETA GIDA DIDAKTIKOA:**
Luisa Calvo

**GIDA DIDAKTIKOA
EUSKARA ARDURADUNA:**
Joan Ignazio Bereziartua

**ZUZENDARITZA ETA
ERREALIZAZIOA:**
Mikel Val

SOINU BANDA:
Inhar Val

EDIZIOA:
Goiatz Multimedia, S.L.

TXOTXONGILOAK:
Goiatz Multimedia, S.L.

DEKORATUAK:
Sara García

TXOTXONGIOLARIAK:
Macarena Sobrón
Noemí Sobrón
Ana M^a Rodriguez

K2000 S.A.

PRODUKTORE EXEKUTIBOA:
Tomas Ugalde

EUSKARA ARDURADUNA:
Josu Varela

BIKOIZKETA ZUZENDARIA:
Alvaro Sánchez

SARRERAKO KANTA:
Ana Tere Bengoetxea

AHOTSAK:
Monika Erdozia
J. L. Irigoien
Pedro Arrieta
Ana T. Bengoetxea
Ramón F. De Castro
Kepa Kueto
Jon Goirizelaia
Tere Jaio
Eduardo Gorriño

AUDIO TEKNIKARIAK:
Ricardo Goti
Antonio González
Javier Artetxe

NAHASKETAK:
Gorka Lara
Juan C. Cantera

PRODUKZIO LAGUNTZAILEA:
Ana Urresti

KOORDINATZAILEA:
Jon Arce

EIMA 2000

**Ikas material honek Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailaren egokitasun-aitormena du:**

2004-06-25

LEGE GORDAILUA: : SS-452/04

**L.C. PRODUKTOREA
TNO: 945-230715**